






PASIÑO SANTUA.





YESUCRISTOREN PASIÑOÀ.

SARREREA.

1. Yesucristori kendu eskéro
beatuacaz bicitzá,
baldin ezpadot negar eguiten
arrizcoa dot biotza.
Guztioc lagun:
cantadu daigun
ain eriótza garratza.

Berso bacocharen atzean esateco leloa.

2. Yauna, damu dot biótz guztiric,
zuri deungaro eguiná:
ez, ez gueyago nic pecatúric,
ene Yaungoico laztaná,
Lar da okerric:
eguinac gáitic
betoze nekeoc niganá.

3. Mundua baño aurreragótic
icentaurico eguná,
elduzan nosbait an eguitéco
guizonaren osasuná:
Arguia béra
alde batéra,
bestetic egun iluná.

4. Egubén-guren afal ostéan,
bere lagun cituzalá
Cristoc Diego, Pedro, ta Yoán,
Berb'eguin eutzen onela:
«Il-il nago, ta
lo ori bóta:
or eguizue gaubelá.»

5. Gesemanico ortu santúan
auspez lurrean yarriric,
dirantsa Aitari kendu dayála
il bear gogor artaric;
¡Ay! Yesus lárriz,
odol-icérdiz:
eta ¿nic eztot negarric?

6. Icerdi otza arpeguián, ta
biotza nekeen arteán:
ilun arima, gorputza lárri,
ya iltecoen antzeán:
baya alan bére
egoán irne
Aitaren borondateán.

— 7 —

7. Yudegucharrac Yudas lagúntzat
arturic, datoz itauntzén,
Nazarenoa derichan Yésus
emen ete da aurkitzén.

Yudas ordúan
bake modúan
doaco mosu emotén.

8. ¡Ay, ceimbat dira Yudas leguézco
Cristoren adiskideác,
campotic laztan, barrutic sáldu
ausiric bere legueác!
¡Cristinau falso,
arima gaisto,
Becatari saltzalleác!

9. Erantzun eutsen Yesus maiteac:
«Cein billa zatoze oná?
Ara ni emen, ezta bestéric
gura dozúen guizoná.
Etzan ni gaitic
soca beárric:
ez eldu lagunoc ganá.»

10. Escuetatic tint lotu even
guztien ascatzalleá,
cegaitic au zan nire onéan
Yaunaren borondateá,
urratutéco
aimbat urtéco
becatuaren cateá.

11. Icaslât euren Maisua âlan
eveneraco icusi,
bacnr bacarric bera ichita,
voân yacozan iñesi.
Pedro etórren
bere ondóren,
baya au bere urrundi.

12. Yauna daroc Anas ta Cáifas
Apaiz-Andien aurrerá,
iracatsien ganean, éta
Yarrailen conta artzerá.
Anas gaistóá
âurrenengóá
astén yaco itantzerá.

14. «Eztot nic, diño Yesuslaztanac,
iricatsi ezcutuân:
aguiria zan berb'eguite au,
Sinagogan, ta templuan.
Ez niri itáнду:
berein ditúzu
entzun navenac munduan.»

14. Erantzute au entzun ordúco
soldadu batec bertati
gora daroa beso tzarrá, ta
dirautso okerrac Yaunari:
«Icasi daizun
celan erántzun
ostera nagusiari.»

— 9 —

15. Esan ta eguin, omoten déutso
arpegui galant bereán
belarrondoco eskerga tzár bat
anche guztien aurreán.

Eta ¿cerúac
dagoz lotúac,
au icusten davenean?

16. ¿Nosco al dozuz, Ait'-eternoá,
oñastarriac, ta suác,
ez erretaco anche berpértan
ain escu lotsa-galduác?

Cernac, éa,
¿na lastérca.

¿Non tzare, non Aingueruác?

17. Baldin deungaro berb'eguin badot:
cetan dagoan esaizu;
baya ecpadot, diño Yesúsec,
ecetan bere erratú,
¿cegaitic, árren,
berb'-eguin-árren,
onelan neu yoten nozú?

18. Indazu, Yesus biotzecoá,
epelasun eder ori,
yakín daguidan celan nekétan
emongo dodan aurpegui,
pa reatuágaz
biótz onagaz
arerió charrenari.

— 40 —

19. Sua egoan eskepcán, ta
Pedro berotzen su atán,
cerren biotza Maisua-ganá
otzac kikilduric eucán.
Su aren kéac
bere beguiac
negarréz bete cituán.

20. Cerren ollarrac ez evan jayl yo
birritan bere soñuá,
non iru bider ucatu évan
San Pedroc bere Maisuá.
Ezta bestéric
galbidêtaric
ateraten dan paguá.

21. Caifasec barriz itantzen deutso,
bitarteturic Yaincuá,
«Esan guidazu, Yesus, bazàra
Zu Mesias aguinduá.»
Alan czpada,
¿cetaco izán da
engañetca munduá?

22. Bekian Yannac, cetara yóian
orduco autorcuntzeá.
Caifas evilen nondic billatu
Yesus galtzeco bideá:
eta onélan
batu nai évan
il eiteco achakiá.

— 44 —

23. Alan da guzti bayetz dirautso
Aitari beguiraturic:
baita Caifasee bere deadar
soñecoac urraturic:
«Deuseu blasfēmau:
il, il beár dau:
guztia dago eguinic.»

24. Yaguiric guero Batzar dongaric .
ártuten dave bideá,
larri calera, non Pilatósec
ei cucan bere etseá.
Zan Erromáco
«Idi atáco

Yuduén Aguintzalleá,

25. Yuézac diño: «Emongo bádot
guizon au eriotzará,
ecarri, cá, bide egokiac
Ezpadozuez, ¿cetará
dacardazúe?

Eroaizúe,
or, Herodesen aurrerá.»

26. Yaungoicuaaren yakitura
dauco munduac zorotzát:
agaiti diño Erregue órrec:
«Yantzi soñeco zuri bát.»
Ostean ¿célan
erosico zan
yanzki garbia guretzát?

— 42 —

27. Esaten deutse Pilatoséri
Yudûen Sacerdoteac:

«¿Uste al dozu eztoguzála
guc bere gure legueác?

Blasfemadú dau,
eta beár dau
il aó lotsa-bagucác.

28. Onec esan dau, izaníc árotz
necatu baten semeá,
Yaungoicoaren Seme dalá, ta
Yudeaco Erregueá.

Ilten expózu,
etzara, ez, zu
Cesaren adiskideá.»

29. Gura eukcan Yuêzac Yésus
il bearretic aterá:
cegaitic ece bere errucza
eldu zan len igarterá.

Baya Yudúac
itsu galduac
ez etorrezan atará.

30. «Eriótza bat eguinda, diño
dago Barrabas carcelán.
¿Nor nai dozue, Nazarenóa,
edo á bildu daguidán?
Da izcunéa
bat ascatzéa
zuen Pasco-eguneán.»

31. Osta aotic atera eban,
ta asi cirean deádarrez:

«Azcatu guizu Barrabas; baya
Yesus Nazarenoa ez.

Orrec bear dau

ondo alátu

abe batean min erréz.»

32. Atzera diñoc Pilatoséc: «¿Cer?

¿cer baya orrec eguin dú?

Israeleco Erregue dala

jesatea al dau errú?»

Aec deádar:

«Erregue César:

ori crutzerá biraldú.»

33. Yuez deungueac legue guztiac

botaric osticoperá,

errubâcoa biraldutén dau

azote latzac artzerá.

Aita guréa,

ceure Semea

¡lapur okerren tokirá?

34. Yaungoico ashe, seinec mundúa

daucan ederrez yantziric,

nabarben gogor tunica guño

soñecoac erantziric,

billos gorrian

egun arguian

ichi even lotsaturic.

— 14 —

35. ¿Non tzara gana, ta non odóyac?
Puntasuna ¿non tzará?
¿Ez al tzatoce Virgineâren
Semea estaldutera
¡Ah! eguzkia,
ceure arguia
batu eguizu atzerá.

36. Bost milla azote, eta gueyágo,
loturic columna batén,
asi yacozan sei borrrerú tzar
bizcarrean, ta:..... emoten.
Ibai bat célan,
alan asi zan
odol beroa yausitén.

37. Arriac, eta Yesus gaishoac,
biac alcar cirudién:
cegaitic etzan onen aótic
ay ay bacar bat entzutén:
Mimenen brinac
Ach gogor ilac
cituzancean laztutén.

38. Arri-aberíc aringa Yáuna
soldadua ac ascaturic
danac doacoz adoretára
barrez Erregue eguinic;
bere coróa
arantzazcóa
buruan irme yosiric.

— 15 —

39. Capa gorria soñean, éta
cañabera bat escuán:
onelan Yesus Beerabilden
becatariac munduán;
mundua béra
orositéra

Yaun ori yoian orduán.

40. Yesus onelan icusi éta,
Pilatos errukituric:
«Eztot, dirautse, nic aurkituten,
guizon onegan erruric.
Il eguizúe,
gura bozúe:

Erroman ezta legueric.»

41. Acc deadar: «Yauna dalaco,
Pilatos, bildur bazará,
datorkiela gueure arimai
orren odola ganerá.
Ezcara ardúra:
gure contúra

aguindu guizu crutzerá.»

42. Yuéz gaistoac Yudegu chárren
esana eguitearric,
erabagui dau sentenciá bat,
ez inóc okerragoric:
eta gurá dau
garbi guerátu
Yaincoaren odoleric.

— 16 —

43. Alper alperrie iltzalla órreo,
garbitzen dozac escuác,
Yuéz arteztzat euki ayántzat,
on-guzur ori munduác.

Loituric ago;
baya gucyago
i baño bere Yuduác

44. Curutze baten gure erruác
arturic lepo-ganeán,
abiadu zan Calbarióra
Jesus lapurren arteán.

Artu cruzéa;
au da bidéa;
galduco gara bestelán.

45. Errucarria pausu bat here
emon ecinic aurrerá,
zubilto tzarrac aspiratúta,
ezarri evan lurrerá,
¡O becatúa,
ceure pisúa!

Carga guztia zu zará

46. Ecin bacarric eroan évan
zalacó guztiz astuná.

Agaitic bada emoten déutse
lagun Cirene-tar oná.

¡Ceure zorion

benetan, Simon!

¡Ay bada zure eguná!

— 47 —

47. Bide onetan bacioanéan

Calbarioco mendirá;

Seme laztana icusi náiric;

Ama egocan beguirá;

An dira álac,

An atsacábac,

martirióac an dirá

48. Ama Virgina larrituéna,

ichi eguizuz beguiác:

estaldu zaitez, aínbaga bére

asco daroa Semeác

atsacabáric:

ta ez berbáric

ichico deutsu negarrác.

49. Biraltzen dituz Amac beguiac

Semea icustearrén;

baya biótzac eroán écin,

ta atzera dira biurtzén.

Datoz agáitic

beguietátic

biótzac berba eguitén.

50. Semcarenac esaten déutso:

«Báquizu, Ama maiteá,

damu, ta damu badozu bére

onelan neu icusteá;

bestelan écin

leitela éguin

Ceruagazco bakeá.

— 48 —

51. Ene Aitaren borondatéan
ceurea beti daucazu:
aren esanac naroa: águr:
bendeciñoa ecazu.
Neure ordeáz
becatariaz
ardura izan eikezu.»

52. «Zoaz, Semea, dirautso Amac,
iltera ordú oneán.
Baya, ta ¡celan ichi nai nózu
onango bacartadeán?
¡Ay, celan bai nic
zugaz, ta pócic
bicia galdu neikean!»

53. Yesus gurcac onelan nékez
eguinic bide erdiá
Veronicarén errai samúrrac
kendu cutsan icerdiá.
Lan onen sári
Yaunac dau ichi
zapian antz-irudiá.

54. Beeroezan bere lagúntzan
Yerusalengo alabác
damuen andiz beguietatic
urturic euren biotzác.
Ta eurac gána
hiurta Yauna,
eta cirautsen:» ¡Ay andrác!

— 49 —

55. Arech ece au erretan bádan
becatuaren su garrác,
¿celan eztituz érrauts eguingo
su orrec egur igarrác?

Ez niri négar:

eztot nic béar:

becatuari negarrác.,,

56. Eldu cirean Calbarióra,
anche ta prest borrhernác,
gauza guztien Eguilleári
yosteco oñ ta escuác:

icusí léyan

¿bigarren Adan

zugatz barrian munduác.

57. ¿Noc dituz escu-oñ orréctan
burdiñeagaz idigui
gorroto, edo onerechiac
odolezco lau iturri?

¡Ay! bularretic,

ate eguinetic.

matitetasuna da aguri.

58. Baltzez yantziric ezcuetetan dau
Ceru menac aurpeguiá:

lotsaren lotsaz

guelditzen dala

gorrituric ilarguiá:

ta gau mineán,

egoanéan


— 20 —

goren goren eguskiá.

59. Austen badira arriac, ¿célan
dagoz biótzac osoric,
zur itzalean min-alaz ilten
gucure Yesus icusiric?
Pecatariac,
gora beguiac,
negar iturri eguinic.

60. Gogotic negar eguingo deutsut,
yarriric ceure oñetán,
ene Yaun ona, zaitudaláco
imini crutze orretán.
Ceu iraundúa
niré damua
gauza guztien garcán.

61. Izana gaitic, Yave maiteá,
neure errua andiá,
indartsua da zure odola:
au dakidala balia
Neure erruki
Yesus zuc éuki:
Yauna, nizaz errukiá.





PECATARIAI DEIAC.

1. Jesus, arzain maitea,
dator gaur dedarréz,
ardi galduen billa
arin ta negarréz.

*Damuz, eta negarréz
nator ni zugana:
Jesus ¡ay! nic damú dot
pecatu eguindá.*

2. Ama baten negarrác
seméa galtzéan,
ezlave cer icusi
onén'en aldeán.

— 22 —

3. ¿Nora zoaz iguezca
esquer gaistocoa?
arren aitu Jesús en
biotz naibacoa:

4. Erri asagôetan
¿cer aurquitu dozú?
gosea, ta negarra,
autórtu nai bozú?

5. Celan ceu aztu zara
Jesus on-onegáz,
bere mesedeacaz,
bere laguntzeáz?

6. Zatoz, pecataria,
bide leun garbirá
gura badozu guero,
igon gloriará.

7. ¡Ay! ce poza berétzat
aurtquitsen bazaituz,
lepo ganian pócic
ac artuco zaitúz.

8. Jauna gana bazátoz
ceru ederreán,
¿ce canta, ce yolásac
eguingo direán!

9. Ez bada, ez gogórtu
guizon zoratuá;
ez beste bcin larritu
Jesus maitetsuá.

— 23 —

10. Arren urten lasterca
bide deunguectaric;
agurra eguiézu
biotz-biotzeric.

11. Agur mundu zorea,
agur pecatuá:
gaur-ganic billa gurot
Jesus gozotsúa.



JESUS CURUTZEAN YOSIARI.

Jesus guere Jaun maite
amodiotsuá,
damu dogu guztioc
ceñ ofendiduá

1. Yosiric icustéan
crutze orretan ceñ,

— 24 —

errúquiz ¡ay! biotza
¿noc urratuco ez deñ?
baita baleuco bere
arri biurtuá. *damu.*

2. Burutic oñelara
gorputz eder ori
zauri gordin eguinic
dozu guztiori:
¡ay! zorigaistocóa
gueure pecatúa! *damu.*

3. Oñac, escu tá alboa
danaczulaturic,
bizcar-aldea azótez
guztia aparturic;
arantza gogorrácaz
yosiric buruá. *damu.*


4. Aimbeste min gogorrez
gaisho zareala,
arzain bat ardiaren
atséan beclá,
gueure billa ceu zabiltz
errúquiz urtua. *damu.*

5. Jesus ceu gure billa,
ta ¿gucuc igues zuri?
Gueu bear gozuzala
ceuc Jauna, dirudi.
¡O guizon esquerbáco,
gaisto zoratúa! *damu.*

6. Jauna, ¿cer galtzen dozu
gueu ézoc galtzéan?
¿Gueu бага etzincan
betico guztían?
¿Cec zaúcaz ceu gugana,
arren laztantsua? *damu.*

7. Ceu бага ecin gueinque
gauzaric baperé,
ezta ecclan emon
arnasa bat beré.
Ceu ondazun gustien
sustrai ta buruá. *damu.*

8. Au ónelan yaquinic,
¿bici izan naz ní
beti urrin ceu-gánic,
ceure igues beti?
Ondo neucan ní lúrrac
nombait itsutua! *damu.*





ANDRA MARIARIESCARIAC.

1. Pecatorioc ama,
Virgina zaitugúz,
ceugan gueure biotzac
gueuc iminten dogúz.

*Eguizu ceuc, Maria,
gu gailic erregú
erioizaco orduan
ez gaitezan galdú.*

2. Ceure icen santúa
balia bequigu:
ceure biotz onéan
usteac guc dogúz. *Eguizu.*

— 27 —

3. Bein bere inor ezta,
ta bai, Maria, zú,
aman izan ezquero,
doncella guelditú. *Eguizu.*

4. Jaungoicoaren ama
eguinic zacusgúz,
arren ceure semetzat
ezágutu gaizúz. *Eguizu.*

5. Ceure semeac gaituz
cerutic billatú;
¿celan ceue naico dozú
gauen gaitezan galdú? *Eguizu.*

6. Zaquiguz bada lagun
daiguzan garbitú
biotzac, peccatuan
ez gaitezan lotú. *Eguizá.*

7. Pecatu eguin bogu
orren damu dogú;
agaitic ez gaitezan
infernuan sartú. *Eguizu.*

8. Alperric infernuac
artuco dau damú;
orain, guero, ta beti
ceureac gara gú. *Eguizu.*

9. Ceruraco bidea,
Virgina zara zú,
ara gura dabénac,
billa biar zaituz. *Eguizu.*



AMA VIRGINA DOLORETACOARI.

1. Agur dolorezco
Ama larritúa,
Erreguina laztan
erruquiz urtúa.
*Artu gaizuz, Ama,
seme necatúac.*

2. ¡Oh Raquel ederra
nequez asetúa!
gu semeoc gagoz
negarrez urtúac. *Artu.*

3. Ceure biotzeco
cañibet sutsúac
sartu izan deutzuz
gueure puecatúac. *Artu.*

— 29 —


4. Orrec bada gacaz
guztiz damutúac,
garbitu gurario
negarrez errúac. *Artu.*

5. Gueure zorióac,
Virgina prestúa,
ceure bitartécoz
dituguz artúac. *Artu.*

6. Ceure ezpatac dira
arma zorrotúac,
berlan apurtzéco
diabru galdúac. *Artu.*

Icusi nai gueunque
gueuc erbestetúoc,
ceure seme lazlan
Jesus gozotsúa. *Artu.*

8. ¡Oh Ama bigúna!
¡ó erruquitsúa!
arren izan gaitez
ceruan sartúac. *Artu.*





SALVEA.

- b.* Jaungoicoac gordezaitzala Erre-
guina,
b. erruquiz beterico Ama,
a. bizitza, gosotásun eta esperanza
gueuréa.
b. Jaungoicoac gordezaitzala
b. Ceure deiez gágoz
a. Evaren ume erbestetuoc
b. Ceu gana gagoz gu cizpuruz.
b. sentimentuz eta negarrez
a. negarrezco erri onetan.
b. Ea bada, Andréa,
b. bitárteco gueuréa,

— 31 —

- a.* biurta eguizuz guganantz
b. zure begui erruquitsu orrec.
a. Eta erbeste au irago éta,
b. eracutsi eguiguzu Jésus,
b. ceure sabeleco frútu
b. bedeincatúa.
aa. ¡O biotz-bigúna!
aa. ¡O erruquiorra!
b. ¡O Maria Virgina gozoa!
b. erregutu eguizu gu-gaiti,
b. Jaungoicoaren Ama santéa,
aa. mercedu daigun
b. alcancetéa
a. Jesucristoren aguintzariac.
b. Amen. Jesus.

Fin.

